



13/2002 GOMENDIOA, APIRILAREN 15EKOA, GASTEIZKO UDALARI EGINA, ALKATETZAREN OTSAILAREN 27KO DEKRETUA BALIORIK GABE UTZI ETA BERRIZ EBATZ DEZAN, ERREKLAMATZEN DUEN PERTSONARI ERAGINDAKO BENETAKO KALTETIK DATORREN ONDAREZKO ERANTZUKIZUNA ONARTUZ.

Aurrekariak

Pertsona batek 2000ko apirilaren 10ean garabiaren udal zerbitzuak autoa eraman zionean ibilgailuak jasandako kalteak salatu zituen.

2000ko apirilaren 12an erreklamazioa aurkeztu zuen udal zerbitzuetan; gidariaren atean eta matrikularen plakan kalteak zeudela alegatu zuen.

Gerora, Alkatzaren 2001eko otsailaren 27ko Dekretuaren bidez, erreklamazioa ezestea ebatzi zen, ibilgailuak kalte horiek lehendik zituela-eta, inolako kausalitate loturarik ez zegoela argudiatuz.

Kexa espediente hau izapidetzearen ondorioz, erakunde honek kexagilearen eskea espresuki ebazteko eskatu zion udalari, eta jarraitutako administrazioko espedientea guri helarazteko.

Gogoetak

1. Espediente honen xedea kexagilearen asmoaren oinarri juridikoa aztertzea da. Hark uste du eragindako kalteak Gasteizko udalari egotz dakizkiokeela, ibilgailuak eraman eta gordetzeko udal zerbitzua ondo arituko ez zelako.

Aurretiaz –lehenagoko espedienteetan bezala- administrazioaren ondarezko erantzukizunaren nondik norakoa kokatzen deneko lege esparrua azalduko dugu.

Konstituzioak zera dio 106.2 artikuluan: herritarrek, ezinbesteko egoerak salbuetsiz, beren ondasun eta eskubideetako edozeinetan jasaten duten lesio ororen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela, betiere lesioa herri-zerbitzuen funtzionamenduaren ondorioz gertatu bada.

Araubide hori Konstituzioaren aurreko beste arau batzuetan jasota zetorren jada, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio



Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen bidez -azaroaren 26koa- garatu da. Xedapen arautzaile horren arabera, partikularrek herri administrazioetatik beren ondasun eta eskubideetako edozeinetan jasandako lesioen kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute, ezinbesteko egoerak salbuetsiz, betiere lesioa herri-zerbitzuen funtzionamendu normal zein ez-normalaren ondorioz jasan bada.

Kalte-ordaina merezi duen eskubidea sortu izana kreditatu ahal izateko exijitzen diren betekizunak legearen testutik beretik ondorioztatzen dira, baita Epaitegi Gorenaren jurisprudenzia ugaritik ere.

Hartara, pertsona bati edo pertsona multzo bati begira, banaka eta dirutan ebaluatzeko moduko kaltea edo galera benetan gertatu dela egiaztatu behar da; erreklamatzeko duenak jasandako ondarezko kaltea edo lesioa herri-zerbitzuen funtzionamendu normal ala ez-normalaren ondoriozko kausa edo ondore zuzena, berehalakoa eta eskusiboa izan dela, kausazko lotura aldaraz lezakeen elementu arrotzik tartekatu gabe, ezinbesteko arrazoirik gabe; eta erreklamatzeko duenak bere jarrerarengatik bere senez eragindako kalterik jasateko behar juridikorik ez duela. Halaber, erreklamatzeko eskubidea iraungi ez izana ere exijitzen da, egitateak gertatu zirenetik urte bete igaro delako.

Konstituzioak finkatzen duen ondarezko erantzukizunaren araubidea objektiboa, edo emaitzazkoa da, eta ez dauka zerikusirik herri-zerbitzuen jardueran izandako inongo erru edo axolagabekeriaren zein omisioren inolako beharrekin.

Horregatik, administrazioeko organoak erreklamazioko eskariaren alde ebatzi beharko du herri-zerbitzuen funtzionamendu normal ala ez-normalaren eta eragindako lesioaren arteko kausalitate-lotura frogatzen denean.

Herritarrek ez daukate zertan jasan administrazioaren jardueraren ondoriozko lesio edo kalterik. Horregatik sortu zen administrazioen erantzukizuna, Zuzenbide Estatuaren berezko bermeen artean. Izan ere, administrazioaren jarduerak, besteak beste, denen interesa lortzen saiatu behar baitu.

2. Eskuartean dugun kasuan, ibilgailuan jasandako eta erreklamatzeko duenak alegatutako kaltea lehendik zegoen ala autoa hartu eta udal gordetegian izan zen bitartean gertatu zen argitzea da kontua.



Horretarako, Gasteizko udalak (...) zenbakiko subofizialak egindako udaltzaingoaren txostena aipatzen du.

Espedientean jasota dagoen txosten horretan esaten da ezkerraldeko aurreko ateko kalteak “ibilgailua eramateko fitxan” lehendik zeuden kalte gisa ageri direla.

Txostenak dio, ordea, balitekeela matrikularen plakako kalteak garabiaren altxatzeko sistema ibilgailuaren azpitik konektatzean gertatu izana.

Horren harira, ulertu beharko litzateke ibilgailuaren ateko kalteak lehendik zeuzkala –eramateko fitxatik ondorioztatzen denaren arabera-, baina gainerako kalteak, matrikulakoak, udal zerbitzu horri egotz liezazkiokeela.

3. Horregatik, udal ebazpenean adierazitakoaren aurka, udaltzaingoko agentearen txostenean ageri da zenbait kalte eragin zirela garabiak ibilgailua eramatearen ondorioz, nahiz eta ibilgailuaren aurreko matrikulakoari egindakoak soilik izan.

Ondorioak ateratzeko, esan behar dugu garabiaren eta udal gordetegiaren funtzionamendu ez-normalak eragin zituela kexagileak alegatutako kalteetako batzuk, eta, beraz, Gasteizko udalak, herri-zerbitzu horren titular izanik, kalte horientatik erantzun behar duela.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

13/2002 GOMENDIOA, apirilaren 15ekoa, Gasteizko udalari egina

Gasteizko udalak baliorik gabe utzi beharko luke (...)k aurkeztutako erreklamazioa ezestea erabaki zuen Alkatzaren 2001eko otsailaren 27ko Dekretua, bada, udaltzaingoaren txostenetik ondorioztatzen denez, autoa udal gordetegian egon zen bitartean, aurrealdeko matrikulan kalteak eragin zitzaizkion.

Gerora auzi hau berriro ebatzi beharko luke, kexagileari benetan eragindako kaltetik etorritako ondare-erantzukizuna onartzeko, espedientean zehazten den proportzioan eta zenbatekoan.